



BEHAKETA-JARDUERA: Irakurri arretaz jarraitu beharreko urratsak:

- **PROPOSAMEN BAT EGINGO DUGU TXANDAKO**

Txanda bakoitzean gauza zehatz batean zentratuko gara. Adibidez: *“Hanka honen luzeran erreparatuta luzeagoa dela dirudi. Nik uste apur bat motzagoa egingo bazenu hobeto egongo litzatekeela”*.

- **HOBEKUNTZA-PROPOSAMENAK EGINGO DITUGU**

Kideen marrazkia ebaluatzean, ez du balio gaizki zer dagoen soilik azpimarratzeak. Adibidez: *“Hanka hau luzeegia da”*. Gure lagun eta ikaskideei baliabideak eman behar dizkiegu euren behaketa egiten eta marrazkia osatzen laguntzeko. Beraz, zerbait ezegokia iruditzean hau nola konpondu edo hobetu ere esan beharko diogu; adibidez: *“Hanka honek luzeagoa ematen du, nik uste apur bat motzagoa egingo bazenu hobeto egokituko litzatekeela”*.

- **ZEHATZ-MEHATZ ARITUKO GARA**

Ahalik eta zehatzenak izaten saiatuko gara. Adibidez: *“Nire ustez, hanka honen tamaina erdiraino txikitzea komeni da”*.

- **ERREPIKAPENAK SAIHESTUKO DITUGU**

Ez dugu gainerako kideek aipatutako gauza bera behin eta berriz errepikatuko. Kide batek hankak motzago marrazteko esan badio, guk ere gauza bera pentsatu arren jada hori komunikatu denez gero, ez diogu bi aldiz errepikatuko marrazkia egin duenari.



BEHAKETA-JARDUERA:

Ikaskideen irudien inguruko hobekuntza-proposamenak egiteko honako urrats hauei jarraituko diegu:

1. Urratsa: ondo dagoena aipatu.

- Uste dut oso lan ona egin duzula marrazten.
- Atal hau..... oso ondo geratu zaizu.
-egiten oso ondo asmatu duzu.

2. Urratsa: aldatu beharreko atala zein den adierazi.

- Nire ustez....
- Nire iritziz ...
- Nik uste dut....
- Irudian erreparatuz esango nuke.....

3. Urratsa: aldaketa proposamenak egin.

- ...horregatik horrela egingo nuke:
- ...agian egokiagoa litzatekehorrela egitea:

